


Euskal AEko industria-prezioak % 0,9 igo dira 2025eko abuztuan, aurreko hilaren aldean

2024ko abuztuaren aldean, industria-prezioek % 0,6ko igoera izan dute

Eustatek bildutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 0,9 egin dute gora 2025eko abuztuan, aurreko hilaren aldean. Abuztuko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 0,6 igo da.

Azterketa xeheago batek agerian uzten du 2025eko abuztuan *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 2,8) eta *Ura* (% 1,7) sektoreek izan dituztela jaitsiera handienak prezioetan, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, prezioetan hiletik hilerako igoera handienak izan dituzten sektoreak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 19,1) eta *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 3,0) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraituz, 2025eko uztailaren aldean, *Bitarteko ondasunen* prezioak % 0,7 jaitsi dira. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, % 0,3 igo dira, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunenak* % 0,4 igo eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak* % 0,2 jaitsi direlako. *Ekipamenduko ondasunetan* prezioak % 1,9 igo dira, eta *Energian* % 4,1.

Urte artean, 2025eko abuztua 2024ko abuztuarekin alderatuta, prezioen igoerarik handienak honako adar hauetan izan dira: *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 14,7) eta *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (% 10,2). Aitzitik, *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* adarreko prezioek % 5,5eko urte arteko jaitsiera izan dute, eta *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez metaliko batzuk* adarrekoek zein *Metalurgia eta produktu metalikoak* adarrekoek % 0,8 egin dute behera.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	113,1	0,9	0,6
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	136,1	2,1	2,2
Manufaktura-industria	116,2	-0,0	0,6
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	127,9	0,2	2,9
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	112,2	1,1	0,5
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	124,0	0,3	0,6
Kokeak eta petrolio flintzen	110,2	-2,8	-5,5
Industria kimikoa	127,9	-0,3	0,4
Botiken fabrikazioa	119,2	-0,0	10,2
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	116,2	-0,0	-0,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	112,1	-1,1	-0,8
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	127,5	2,7	14,7
Material eta ekipoen fabrikazioa	122,6	-0,4	7,6
Beste inon salikatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,6	0,9	1,4
Garraiorako materialen fabrikazioa	116,1	3,0	3,1
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	117,0	-0,2	1,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	78,6	19,1	-0,2
Ura	130,1	-1,7	3,5
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	125,1	0,3	4,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	114,1	-0,2	1,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	128,1	0,4	5,3
Ekipoen-ondasunak	116,5	1,9	3,5
Bitarteko ondasunak	115,5	-0,7	-0,5
Energia	96,7	4,1	-3,3

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehinekoko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko irailaren 23a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasun-talde nagusien prezioen urte arteko aldakuntza gero eta handiagoa izan da *Kontsumo-ondasunetan*. Kasu horretan, % 4,5eko igoera izan da, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* igoera % 1,1ekoa izan delako eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* % 5,3koa. 2024ko abuztuarekin alderatuta, prezioak % 3,5 igo dira *Ekipamenduko ondasunetan*. *Bitarteko ondasunetan*, aldiz, prezioek % 0,5 egin dute behera urte arteko terminoetan, eta, azkenik, *Energian* % 3,3ko urte arteko jaitsiera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten esfortzuagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren % **88,48**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62